

KIROL-IRAKASKUNTZAK

Abenduaren 19ko 1913/1997 Errege Dekretua argitaratu aurretik, kirol-modalitate edo -espezialitate bakoitzeko kirol-teknikarien prestakuntza kirol-federazioen edo haiekin lotutako entrenatzaile-eskolen mende zegoen soilik. Hau da, kirol-federazioek arautzen eta antolatzen zuten entrenatzaileen prestakuntza, administrazio publikoaren kontrolik, ikuskapenik ez erregulaziorik gabe. Federazio bakoitzak egoki iriztitako ikastaroak eskaintzen zituen; horrela, alde handiak zeuden kirol batzuen eta besteen artean eskola-orduei, helburuei, edukiei, sartzeko eskakizunei, ebaluazioei eta mailei zegokienez, besteak beste. Gainera, ikastaro haiek ez zuten inolako baliotasun akademikorik, eta ikastaro bakoitzaren baliotasun profesionala zegokion federazioak zehazten zuen haren ekintza-eremuan.

Abenduaren 19ko 1913/1997 Errege Dekretuarekin eta, geroago, hura ordezkatu zuen urriaren 24ko 1363/2007 Errege Dekretuarekin (azken hori indarrean dago oraindik) ezarri zen egungo kirol-ikasketen sistema. Horren bidez sartu ziren hezkuntza-sisteman kirol-modalitate eta-espezialitate desberdinetako kirol-teknikarien irakaskuntzak. Ikasketa horiek ikastetxeetan ematen dira; horrela, ikasleek baliotasun akademiko eta profesionaleko tituluak lortzen dituzte. Araubide bereziko kirol-ikasketa izendapena dute, eta Lanbide Heziketako prestakuntza-zikloen antzeko ezaugarriak dituzte egiturari (erdi-mailakoak edo goi-mailakoak izan daitezke), sartzeko eskakizunei eta tituluari (kirol-teknikaria eta goi mailako kirol-teknikaria).

Apurka-apurka sartu dira kirol-modalitate edo espezialitate desberdinetako irakaskuntzak hezkuntza-sisteman, haiei dagozkien kirol-teknikari edo goi-mailako kirol-teknikari tituluaren dekretuak argitaratzen joan diren heinean. Hala, bada, une honetan kirol-espezialitate hauetako irakaskuntzak daude hezkuntza-sisteman txertatuta: mendia eta eskalada, neguko kirolak, futbola eta areto-futbola, atletismoa, eskubaloia, saskibaloia, espeleologia, hipika, bela, kirol-urpekaritza, salbamendua eta sorospena, esgrima eta piraguismoa.

Bitartean, eta hezkuntza-sisteman txertatzen ez diren arte, gainerako kirol-modalitate edo -espezialitateak aldi baterakoak dira. Azken horiek kirol-sistemako ikasketa ofizialak dira, otsailaren 5eko ECD/158/2014 Aginduak arautuak; horrenbestez, Espainia osoan dute baliotasuna. Autonomia-erkidegoetako kirol-administrazioek edo Espainiako edo autonomietako dagozkien federazioek susta ditzakete; hala ere, irakaskuntzak federazio batek antolatzen dituenean, autonomia-erkidegoko kirol-administrazioaren ardura da prestakuntza-jarduerak ikuskatu eta aitortzea. Baliotasun profesionala dute, baina ez akademikoa; nolahi ere, kirol-modalitate jakin bateko irakaskuntzak hezkuntza-sisteman txertatzen direnean, ikasleak bere tituluari dagokion aitortpena jaso halako du eta, horrenbestez, dagokion baliotasun akademikoa ere bai.

Ez da ezarri kirol-modalitate edo -espezialitateen irakaskuntzak hezkuntza-sistemara sartzeko plangintzarik ez egutegirik, eta Kirol Kontseilu Gorenari edo Espainiako gobernuko hezkuntza-administrazioaren mende dago zeregin hori.